

BELTXARGARENA

Aingeru baten maskota omen da. Izan ere, beltxargak badu aingerutik, dena kotoi, luma, isiltasun.

Isiltasun dardaratia.

Eskola-ume talde bat Aieteko parkean barrena. Han behean, Donostia; zerauren txoko bat dirudi. Maistrak xuxurlatzen du: "Aingeru bat igaro da". Agian, beltxarga baino ez zen, ur gainean irristan. Edo, beharbada, naturaren arnasa isila besterik ez, zuhaitzez zuhaitz, aingeru baten antzera, edo igerian dabilen beltxarga baten antzera.

Aingeruak ez dira inbidiosoak, bat izan ezik. Beltxargak, berriz, inbidiosoak dira; bat behintzat bai.

Beltxarga bekaiztiak koartzak bat ikusi du putzuan, hanka bakarraren gainean orekan, nahi bezala. Eta inbidia hartu dio.

Berak ere hanka bakarraren gainean nahi, eta plasta, alde batera erori, plasta, beste aldera erori, barregarri. Eta koartzak barre, kar-kar-kar. Orduan, beltxarga, haserre bizian, burua hondoraino sarturik, buruz behera jarri da, orekan. Haren gorputzak buru handi bat ematen du, isatsa bibote gisa astinduz; hankek belarriak dirudite, txalo-txaloka, burlaizez.

Eskola-umeak, barreka, zalapartan hasi dira.

Koartzak lotsagorriturik hegaldatu da. Neskatila batek dio eguzki puska bat dirudiela zeruan zehar.

Edo deabru baten maskota.

Juan Kruz Igerabide

Artejira 2016

EL CISNE

La mascota de un ángel, el cisne. Sin duda, tiene un aire angelical: algodón, pluma, sigilo.

Tembloroso sigilo.

Un grupo de escolares recorre extasiado el parque de Aiete. Al fondo, Donostia parece un recoveco del cielo. La maestra susurra: "Ha pasado un ángel". Tal vez solo ha sentido el paso silencioso de un cisne por la superficie del estanque, tal vez simplemente el aliento de la naturaleza deslizándose entre los árboles como un ángel o como un cisne.

Los ángeles no son envidiosos, salvo uno. Los cisnes sí son envidiosos, al menos uno.

El cisne envidioso ve una garza en el agua, en perfecto equilibrio sobre una sola pata, como si nada. Y siente envidia.

Él también quiere sostenerse sobre una pata; se cae hacia un lado, plas, se cae hacia el otro, plas. Resulta cómico, y la garza se ríe, jijí, jajá. El cisne, todo ofendido, mete la cabeza hasta el fondo y se sostiene boca abajo en equilibrio. Su cuerpo semeja una cabezota enorme, con la cola como bigote, agitándose; y las patas, un par de orejas que aplauden a rabiar la hazaña, expresando: "¡Chinchate!".

El grupo de escolares se ríe y se alborota.

La garza echa a volar toda roja de vergüenza, y una niña dice que parece un trocito de sol surcando el cielo.

O la mascota de un diablo.